


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

278n. zenbakia
zemendia 2002



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



Larrabetzu'ko Salbadore
Baseleizan.



Mungia'ko San Anton
Baseleizan.



Mungia'ko Magdalena
deunaren Baseleizan.

**LEIO BISIGOTIKOAK
(800N. URTEKOAK)**

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

R A Z

2002-2003 IKASTURTEA

OGEI TA AMABOSGARRENA
BIZKAIERAZ
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 125 €

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO

Asierea: URRILLAREN 7AN

34.² CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 125 €

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 423 53 22 - BILBAO

Comienzo: 7 DE OCTUBRE

GIROA BEROTZEN

Gure erria maite dogunok, aspaldion entzuten doguzanak entzunda. ezin geintez isillik egon. Alde guztietatik diardue ekin eta ekin. Olako talde batzuk aitatu doguz: Agintariak, epaikariak, edeslariak, politikariak eta tertulietakoak edo barritsuak.

AGINTARIAK

Demokrazi-antzeko au sortu zanean (75n. urtea-ezke-ro) eurentzat, Lasterri-lege Nagusia edo konstituziñoa (guk ez gendun onartu) eta Araudia ziran bakerako bidea.

Araudia ez dabe dana bete eta beti dabiltz esaten gu ez gagozela araudiaren alde. Epe bat ipiñi dautsegu beteteko eta asarretu egin dira, eurak eperik ez dabelako onartzen. Antza ia 25 urte itxarotea ez da naikoa.

Ogeta bost urteak bete diranean, aurrera egin gura dogu eta ez dauskue izten, araudi ori betikoa dala diño. Eta ez da orrelan. Beronen barruan dagoz aldatzeko bideak eta kanpoan geratzen diran edesti-arloko eskubi-deak.

Gaiñera erri guztien lenengoa dan burujabetzarako eskubidea edo "autodeterminaziñoa" ukatzen dauskue. Ori barik demokraziarari oiñarria falta jako.

Bai Madrid'eko eta Paris'eko agintarien utsik aundiena beste bat da: Euskalerririk ez dagoala uste dabe eta, orduan, il egin gura dabe: Zelan il ez dagoan zerbait? Eta Euskalerririk ez ba'dago, zelan egin alkar-izketa? Nogaz?

EPAIKARIAK

Beste arazo-iturri bat epaikariak dira, Garzon buru dala.

Gogoratu daigun eurak, gure arerioak, aukeratua dala, orregaitik beti dirala euren aldekoak eta gure erriaren arerioak eta epaikari izateko bearren dana falta jakela: Aldebakoak edo "inpartzialak" izatea.

España'ko epaikariak ez dira nor euskaldunen arazoak epaitzeko, eurenak dira-ta. Lasterri-arteko epaikariak bear-ko litzakez.

Ortik sortzen dira gauzarik baragarrienak: Garzon gure legebiltzarrari zer egin bear dauan agintzen. Legebiltzarrak, zentzunez, ezetz erantzun dautso.

Egokiro banatu ebazan Montesquiev'ek laterriaren iru arloak: Legelariak, eragilleak eta epaikariak. Zer esango ete leuke au ikusi ezkerro?.

EDESTILARIAK

Bardiña ete da España'ren edestia (historia) arabeak idatzita naiz gaurko España'tarrak idatzita? Antzik be ez. Ba, antzera Euskalerrriaren edestia España'tarrak naiz euskaldunak idatzita. Antzik be ez.

Guk España'tarrak idatzitako edestia ikasi gendun eskolan eta ba-dakigu zelakoa dan, baiña España'tarrak iñoz ez dabe ikasi guk gero ikasi dogun edestia. Ez dakie. Eta orregaitik dabiltz galduta, beste gurari batzuk eraginda.

Esaterako, eurak euskaldunak Kolon'egaz edo Ameriketari ain ugari aurkitzen ba'dabez, ez dauke zalantzarik, guztiak ziran España'tarrak. Eta ez da olan. Errege katolikokoak Euskalerrriari (orduan Bizkaia eritxon) "nación separada" deritxo. Zer esan gura dau?

Eurak Euskalerrria Bizkaia, Gipuzkoa ta Araba dirala uste dabe eta Naparroa ta iparraldea ez dirala euskaldunak. Baiña ori nondik atera dabe? Eurak ikasi daben edestitik! Egia ez dan edestitik! Zelan euskera berba egin, erri-izenak euskaldunak, oiturak... eta euskaldunak izan ez?

POLITIKARIAK

Goian esandako eritxi oker orreik sendotzeko, politikariak giro on bat aurkitu dabe: Izukeria.

Guztiok dogu gorroto izukeria, eta abertzaleen aurka jokatzeko, España'tarrak abertzaletasuna ta izukeria bat egiten dabez. Orrelan Sozialistak eta PP'k, emen batez be Iturgaitz'ek. Orrelan lortzen dabe España osoan abertzaleak gorroto izatea, naizta euskaldunak ontzat artu. (Abertzaleak ez diranak, jakiña).

Eta emen beste gauza bat argitu bear da: Gauza bat da alderdi politiko abertzalea eta beste bat abertzaletasuna. Euskaldunak izan nai ba'dabe, bai sozialistak eta bai PP'k eta bai Euskalerrria izan nai daben guztiak, Euskalerrria maitatu bear dabe, ori da abertzalea izatea. España'tar guztiak España maitatu bear daben lez, Euskaldun guztiak Euskalerrria. Orra or guztiok barruan bear dogun abertzaletasuna, eta ori ez daukenak ez dira gure aberriaren seme-alaba onak.

"TERTULIAK"

Negargarriak izaten dira, TV eta batez España'ko Irratian entzun al izaten doguzan "tertuliak". Gauzarik ziurrena eta egi bakarra ba'litz lez agertzen dabe euren eritxia. Ez dabe iñoz agertzen euskaldunen eritxirik. Orrelan iruzurtzen dabe España osoa: Euskalerrria Sabino Arana'k orain eun urte asmau eban gauzea dala, Karlos'tarren gudan euskaldunak ez ebela izan zer-ikusirik, lendakariak euskal-arazoari 200 urte ezartzen dautsazala eta ez dakiala edestia, Gotzaiñak zelan agertu leitekezan abertzale (España'tarrak bai).

Eta olakoai erantzuterik ez dago. Gutarikoren batek deitzen ba'dau an dago iriztontzi bat sartu ez daiten. Dana da guzurre, dana maltzurkeria. Eta guk egia nai dogu bai edestian eta bai errian.

OLAZAR'tar Martin'ek

3.- EGIPTO

Leizetatik urten ezkerro, munduan antxiñako erriak joan dira sortzen eta ugaritzen eta jakintza-era zoragarriak sortu dabez. Esaterako, Ameriketako inkak eta India'n edo Txina'n edo Afrika'n edo Asiria'n... Ezin jarraitu olako jakintza guztiai, baiña batzuk bai artuko doguz, eta lenengo Ejipto.

Erodoto edesti-idazle ospetsuak au esan eban: "Ejipto Nilo ibaiaren emoitza da". Eta ori egia da, baiña ez egi utsa: Nilo ibaiak Ejipto'ri bizia emon dautso baiña ez lana sendo ta ugari egin barik. Beste au be esan leike ba: "Ejipto ejiptoarren lanaren emoitza da".

NILO

Mendi-arte baten dator Nilo ibaia goitik bera 1.000 km.'ko luzeeran Ejipto-barruan. Ibai onen ondoan goian naiko errez bizi eikean, baiña beean, itxas-ondoan ez ain errez: uriolak bideratu bear ziran, zelako uretzak etorriko ziran urtero aurrikusi (orretarako asmau ebezan nilometroak), ur-lekuak legortu, legor-arloak ureztatu... lan eta lan.

Bere milla kilometroak Ejipto-barruan amaitzen diranean, Nilo'k delta aundia sortzen dau eta inguru onetan bagillean asita datoz urak, baiña ez edozelako urak, sumendietatik urtendako ongarririkaz lurra oso emongor biurtzen daben urak baiño. Uriola aundi oneik azillean amaitzen dira eta an geratzen da urtero ereiteko lur ongarritua.

EDESTIA

Edesti-aurrea labur-labur agertu geinke: Asieran "nomo"ak edo auzoak sortu ziran leizetatik urten eta laster, baiña beingoan alkartu bear izan eben bizi izateko eta lurralde berezi areri ondorena aterateko eta alkartasun onen buru izan ziran Faraoiak.

Jakintza tokirik errezenean asten da, Nilo'ren goialdean eta lenengo zati onek Menfis dau uriburu: K.a.'tik 2000n. urtean asi eta 1700n. urtera arte.

Bigarren zatirako Iksoak deritxen errege-artzaiñak datoz. Aldi garrantzitsua au 663n. urtera arte: emen asten dira delta egokitzen eta ementxe egiten dabez txuntxur edo piramideak eta 1550n. urtean esfinjea.

663n. urtean asten dira Ejipto'ren zori txarrak. Arrezkerro ez dau iñoz burua jaso: Lenengo asiritarren menpean, gero persetarren menpean, Kambises errege nagusi dala, gero grekoen menpean Alexander

aundia buru zala eta azkena, Kleopatra'ren maite-miñak bide dirala, erromatarren menpean, K.a. 31n. urtean.

EJIPTOARRAK IDAZTEN

Ejiptoarrak izan ziran, feniziarrak baiño lenago idaztea asmatu ebenak: lenengo irudien bidez idazten eben (ideografia), gero asmamenezko idazketa edo jeroglifikoa eta azkenez idazketa demotikoa edo silabikoa. Emendik ikasi eben fenizioak gero mundu guztira, gure artera be bai, zabaldu eben idazkera, K.a.'tik XIII gizaldian.

Ejiptoarren idazkerak ulertzeko, Brussard kapitaiak egin eban aurkikunde aundi bat, "Iarrosatxu" deritxon arria (piedra rosetta). Arri onetan idazki bat agertzen da iru eratara idatzita: gerkeraz, jeroglifikoz eta demotikoz. Ortik ikasi zan dana irakurten.



Roseta arria, Grekoz. Jeroglifikoz eta demonko ikatzia

JAKITURIA BEAR

Antxiñako errien artean Egipto da jakitunena eta orretarako beartuta egozalako zan ori. Nilo menperatzea gaitxa izan zalako asko ikasi bear izan eben eta gero jakituriak jakituria dakar.

Zenbaki arloan nagusi dira eta ortik atera eben aljebra, ibaia menperatzeko izar-iztia edo astronomia ikasi bear izan eben eta ortik atera eben egutegia, gero Julio Kaizer'ek obetu eta XV Gregorio Aita Santuak bideratu eta gaur arte etorri dana (K.a.'tik 4000n. urtean). Medikutzan aurrerapen aundiak egin ebezan eta elerti edo literaturan India'tik asko artu

eben baiña eurak be lan audia ekarri eben, txuntxur-
 rrak egiteko asmalaritza eta etxegintza ondo eskura-
 tu ebezan.

ERLEJIÑOIA

Asierako "nomo" edo auzo bakoitxak bere jainkoa eukan, pizti-itxurakoa, eta "toten" oneik euren elei-
 zak (jauretxeak) eukezan. 3000n. urte inguruan jain-
 ko orreik eta izadikoa nastatzen dira eta izadi-sortzea
 edesten dabe mitoz, kosmogonía.

Ejiptoarren erlejiñoan illai dagokien kultoak dau indar
 aundia eta ortik sortu ziran txuntxur edo pira-
 mideak eta mastabak: Arimea ez da iñoz ilten, gorpuz-
 tza osorik ba'dago. Ortik etorri jaken enbalsamatu-
 bearra eta medikutzarako gorputz-atalak eta gaisoak
 ain ondo ezagutzea. Geroko asmaketak dira arimen
 epaikundea eta geroko bizitzako saria.


Orrexegaitik, egiptoarren artean garrantzi aundia eukan
 abadegoak edo erlejiñoako arduradun ziranen taldeak.
 Onein ekiñez lortu zan Faraon jainkotzat artzea.

EDERTIA ILLOBIAK

Ejiptoarren edertiak erlejiñoan dau bere iturria:
 Orregaitik dira ain ederrak txuntxurak eta illobiak.
 Ori eskatzen eben abadeak. Ori nai eben Faraoiak.
 Orregaitik izan ziran ain ugariak ederti-arloko lante-
 giak eta langilleak.

Asieran illobi asko eta tenplu gitxi dagoz, baiña
 gero, abadeak indarra artu ebenean, illobiak gitxitu
 egiten dira eta jauretxe ederrak ugaritu.


Illobia da ba garrantzitsua: Illari barruzkiak ken-
 tzen jakozan, eta gorpua urrezko il-kutxara sartu eta
 dana arrizko illobi baten barruan zaindu. Illa bakean
 izan daiten sarrerak ondo itxiten ziran. Baiña guztiak



Gizeh'reo txuntxur edo piramideak

izan dira zabalduak lapurrak ondoan egozan bitxien
 billa joan diralako.

Illobiak iru eratakoak ziran: Txuntxurak (pirami-
 deak), mastabak eta ipojeoak edo lurpekoak.
 Keops'en piramideak 160 m.'ko goierea dau eta aun-
 diena da.




Txuntxurren ondoan Esfinjea.

IRUDIAK

Ejipto'n irudigilleak ez ziran entzutetsuak, izen
 bakoak ziran geienak.

Onein lana erlejiñoaren laguntzarako da, ez eder-
 tasuna agertzeko. Orregaitik dira irudi legorak, gel-
 diak, aundikiak. Ospetsuenetarikoa da Nefertiti'ren
 irudia.



Nefertiti irudia

Margolaritzan oso laburrak ziran ejiptoarrak.
 Bitxilana agertzen da Tutankamon'en illobian.
 Orra-or labur-labur jakintza aundi bat.

OLAZAR'tar Martin

BIZKAIKO EUSKEREA

ALPER/ALFER

Erriak erabilten dauan izkuntza ez da beti bardiña izaten: Zan'ak era batera, umeak beste era batera, itxas-aldean batera eta lur-barruan bestera. Er'irik erri eta sarritan etxerik etxe euskereak aldakuntzak daukaz.

Abedea bera be aldatu egiten da. Gure aitita-amamak ez ekien "f" izkia agozkutzen, ez eben esaten "afaldu" edo "Fika". "apaldu" eta "Pike" baiño. Gaur batzuk "alfer" esaten dabe baiña gure artean gazteak be "alper" esaten dabe. Antzera esan bear "Nafarroa"/"Naparroa" eta beste itz askori buruz.

Zelan idatzi. orduan, "afaldu" ala "apaldu"? Nik "apaldu" idatziko neuke eta beste itzetan be "t" ori kentzera jo. Erriaren jokerea kontuan artuta: "Ipar-aizea" eta ez "ifar-aizea", "alperra" eta ez "alferra", "Naparroa" eta ez "Nafan-oa".

ZITUAN/EBAZAN

Euskerearen aurrerabidea aztertu ezker, itaun au jatorku beingoan: Gure izkuntza euskalkietatik baturantza doa ala asierako euskera bakarretik (protovasco) euskalkietara?

Erantzuna ez da erreza eta ez bai edo ez esanda amaitzekoa. Bear ba'da asieran bat zan eta gero banatzen joan da, baiña orain albiste-bideak ain lan aundia egiten dabelako eta euskerea ikastoletan erabilten asi garalako, barriro bat izatera goazela dirudi.

Errian beti izan dira baturantza jo dabenak: Parrokietako izlariak, bertsolariak eta batez be mugan dagozen erriak: Elorriro edo Ondarroan Bizkaiko ta Gipuzkoako izenak, adizkiak, atzizkiak... geiago nastaten dira Bizkai-barruan baiño.

Gipuzkoatik etorriak doguz "ditu" eta "zituan" adizkiak. Eta bizkairik geienara sartu dira, Mungialdean, esaterako, "ekarritzuz" entzuten da eta ori "ekarri dituz" da jatorriz.

Aditza artu bai, baiña lar ondo ulertu barik. Gipuzkoan "ditu" askorena da egokizun zuzenez: "Gizon bi ikusi ditu (dauz)", baiña Bizkaian askoren atzizkia azkenean doan lez "dituz" esaten dogu eta ori okerra da. askoren adizki bi ez diralako bear. Bardin "gizon bi ikusi zituan/ebazan" eta ez "gizon bi ikusi zituzan".

Or ikusten da besteen euskalkiak artzeak badauzala arriskuak erri-maillan, naizta gramatikarien artean gauzak ondo bereiztu.

EGI/EGIA

Guztiok dakigu latiñak euskeran, adstrakto lez, ikutu aundiak egin ebazala eta oneitariko bat mugatzaillea da: "Gizon-a"" "Gizon bat". Baiña ikutu au erromantzerako eta latinkumeen izkuntzakaz batera egin eban. Gazteleraz "el, la eta lo" mugatzailleak latiñeko "ille, illa, illud"etik artuak dira eta euskereak olako mugatzaillerik ez eukan lez, antzekoak artu ebazan egokituta: "Gizon-a, -ak. -ek, -ik, -ok" Gizon "bat" eta "batzuk". Eta gaiñera mugatubakoak: "lau gizon etorri dira", lau "gizon-ek egin dabe" eta partitiboa: "Gizonik audiena", "eskerrik asko".

Baiña mugatzaille oneik ez dira erabilten gazteleran lez. Esaterako, gazteleraz "El hombre es bueno" esaten da, baiña euskeraz "gizona ona da" "el hombre es el bueno".

Eta sarritan "-a" ori ez da jakiten mugatzaillea ala berberena dan, esaterako "Donosti" ala "Donostia"?

Ba-dago beste joko bat euskeran zalantza dakarrena: "azpikeri aundia da ori" ala "azpikeria aundia da ori"?

Nire ustez izenlagunak daroan "-a" ori bientzat da eta baten ipintea da naikoa: "Azpikeri aundia". Sarritan agertzen da joko au eta beti orretara erabiliko neuke nik, gaur osterako sartu jaku en'iak esaten ez dauan joko au: "azpikeria aundia ikusi dogu or". Nik ez dot orrelan erabiliko. Dana dala kristiñau ikasbidean "egiazko" dator el egizko.

Iñoz -a ori berberena izan da be, euskereak kendu egiten dau eta jokabide zabala dan lez, neuk be orretara erabiliko dot. Ona emen adibidea joko au argitzeko: "Miseri aundia agertzen da" eta ez "Miseria aundia agertzen da".

MENOS GRANDE

Begiratu daiguzan izen-lagunaren maillak. Iru dira: Izen-laguna bera (positiboa), eta alderagillea edo konparatiboa, eta au bardintasunezkoa, geiagokoa eta gitxiagokoa. Geiengoa (superlatiboa) eta au besteakazkoa (relatiboa) eta guztizkoa (absolutoa).

Izen-laguna bera: onek ez dauka goraberarik.

Alderagillea edo konparatiboa: Onek iru arlo daukaz: bardintasuna, geiagotasuna ta gitxiagotasuna.

Bardintasuna adieraztea ez da erreza euskeran: "Juan es tan alto como Pedro". Zeozelan esan bear: "Jon Keparen bestean da aundia". Adiña be bai.

Geiagokoa errez esaten da: "Juan es más alto que Pedro", euskeraz "Jon Kepa baiño aundiagoa da". "-ago" da ba atzizkia.

¿Eta gitxiagokoa? Au euskeraz ezin daiteke esan ezelan be: "Juan es menos alto que Pedro". Au ez dauka euskereak.

Goazen guztizko edo superlatibora. Au izan leiteke besteakazkoa (relatiboa) eta guztizkoa edo absolutoa.

Besteakazkoa: "Juan es el más alto de los hombres". Onek geienetan joko partitiboa artzen dau: "Jon gizonik aundiena da" eta "-ena" atzizkia daroa.

Guztizkoa: "Juan es altísimo". Au adierazteko era bat baiño geiago dauka eskereak. Lenengoa, izen-laguna bitan esanda: "Jon aundi-aundia da". Obeto joten dau ezetzean: "Jon ez da aundi-aundia". Beste era bat aurrean "oso" edo "gutziz" ipiñita: "Jon guztiz aundia da" edo "Jon oso aundia da".

Aspaldion sarritan entzuten da "muy bien" esateko "oso ondo", baiña obeto artzen dau euskereak "ederto" esatea. Gerkeraz be "kalos" eta "agazos" batera doaz eta "kalokagazos" esaten da. Euskeraz be "oso ondo" baiño obeto dator "ederto".

Olazar'tar Martin'ek

JOSE MARIA AZNAR ESPAÑI'KO JAURLARITZAREN LENDAKARI JAUNARI ZOR ZAION ERASPENEZ (1)

Bi idazlanok Iruña'ko "Diario de Navarra"n agertuak dira. Orregatik doaz Naparroa'ko euskeraz.

Joxemari: Gaur Dagonilla'ren amabosta da: Amabirjiñaren Jasokunde-eguna. Ba, egun ontan, Joxemari, nik ongi ulertzen ez ditudan gai batzuetaz itzegin nai nizuke, erarik adiskidetsuenean.

Gaurko solasaldi ontan, ETA'k zauritu eta edozein erara "kaltetu" dituenetaz itzegin nai nizuke. Eta oien aideetaz. Moralista bezala. Ez politikari bezala, nik politikari ez bait dut. Edo, obeki esanez, nere politika, kristautasunaz gaiñera, Euskera besterik ez bait da: Euskera... ta euskerak berekin dakarren kultura: Euskalduntasuna.

- Lendabiziko gauza au esan nai dizut: Ni ere "viktima" oietako bat nauzula: Ramonita nere arrebaren senarra —neretzako lagunik bikaiñena— Antonio Varela infanteriko komandantea, ETA'k il bait zuen, erarik ustelen eta nazkagarrienean: ixil-ixilik atzetik alderatuta tiro bat emanez. Ori, lotsagarria da. Texas, Kantsas eta Arizona'ko pistolari aiek, naiz benetako gaizkilleak izen, ez zuten iñor atzetik koldarki tiro emanez iltzen. Aurrez-aurre eta bizia jokatuz egiten zituzten beren erailetak.

- "Victima" oien sendikoek Alkarte bat egiñik daukate. Baña izena, "Las Víctimas del Terrorismo" gaizki jarria dute, "Victimen" sendiko guztiak ez bait daude Alkarte ortara sarturik. Bat, adibidez, ni neroni. Eta nik ezagutzen dituten beste asko.

- Alkarte ortakoen, —eta baita zu zerorren eta zure Alderdikoen eta PSOE'tarren itzegiteko erak adierazten duenez, badirudi "Victima" guztiak inperuan daudela usterik zabilatzatela: gorrotoa bait dario zuen izketa-erari.

Gorrotoa, Joxemari, inpernuko kiratsa da. An ez dago gorrotoa besterik. Gorroto utsa. etenik gabeko gorrotoa, da, an dauden guztien arnasa.

Nik ordea eta nik ezagutzen dituten beste asko ta askok, ziur uste dugu "Victima" oiek zeruan dirala. Eta zeruan gorrotorik ez bait da, ura maitasun utsaren, maitasun garbiaren, maitasun osoaren lekua bait da, an ez dezake iñork iñor gorrotatu. Zeruan dagoenak giza-kume guztiak maite ditu, baita etsaiak ere, mundu ontan bizi geranok ere Yosukristo'k agindurik daukagun bezala. Zeruan dauden "Victimek" ez diote iñorri gorrotorik. Nere arrebaren senarrak, adibidez, benetan maite ditu ain era zikiñean bizia kendu zioten pistola-

riak, eta aiei damurako bidea erakuts deiela, eten gabe, Jainkoari eskatzen ari da.

Badut beste zerbait ere, Joxemari, zuri esan bearra: Zure eta zuretarren izkerak, zuei "Victimak" komeni zaizkizutela dirudi. Ziur nago ez dela orrela izengo, bañan orrela dela dirudi. Zuretzat "Victimak", "Batasuna"rentzat "presoak" duten balio bera dutela. Ez da, noski, orrela izengo, baña orrela dela ematen du. Eta matematikeetako ekuazio au egiazkoa dela

"Presoak : Batasuna : Victimak : Españi'ko Jaurlaritza".

Edo, berdin dena, "zenbat eta preso geiago izen, obe Batasuna'ren politikagintzarako; eta zenbat eta viktima geiago izen... (Ez naiz aurrera jarraitzera ausartzen, Joxemari; Españi'n eta Euskalerrian bertan, gotzaiengandik asita azkeneko gixagaixoa arte, borondate onez zure Alderdikoek direnei zor zaien eraspainak isillerazten bait nau).

Gañera badakit, seguruaski ekuazio ori ez dela egiazkoa izengo, baña egiazkoa dirudiela ere badakit. Eta badakit baita're jende askok orixe uste duela. Eta, ori Joxemari, Españi'ko jendeak aukeratu zaitulako, zu Lendakari zaitun Laterri ontan bizi den jende arras ezberdiña alkarrekin pakean bizitzeko, eragozpenik andiena da; eta gaitzik erioagarriena. Bai beintzet Euskalerrri ontako jende násiarentzat.

Ez du naikoa lendakari batek gizon ona izetea; gizon ona izeteaz gañera, gizon ona delako itxurak ere eman bear ditu.

Latiegi'tar Bixente 945 220050

(1) Bi idazlanok Iruña'ko "Diario de Navarra"n agertuak dira. Orregatik doaz Naparroa'ko euskeraz.



ATZERA BERRIZ ZUREKIN NAIZ LENDAKARI JAUNA

Bai. Zurekin naiz berriro, Aznar Jauna. ¿Zure abize-
na euskalduna dela bai aldakizu?

Gaur, ordea, beste gai batez itzegin nai dizut. Ni
bezala beste asko kezkatuak izaten "Alderdiei-buruz-
ko" Legeaz.

"Batasuna" legekanporatu duzu Parlamentuan.
Badakit oraindik Parlamentuko erabaki orrek Epaille
Nagusien sententzia falta duela, baiña mundu guztiak
badaki ori yadanik lorturik daukazula. Epaille Nagusi
guztiak zureak bait dituzu.

Batasuna legekanporatzea, Justiziaren ekintza da,
ez parlamentuarena. Baña sententzi bat baliozkoa izate-
ko, epailleek neutralak izen bear dute, ots alderdikeririk
gabekoak. Españi'ko Epaitegi Guren guztietako epaille
nagusiak, ordea, zuk zerorrek eskuz aukeratuak dire.
Zuk aukeratzen dituzu Fiskal Orokor Nagusia eta Kos-
tituzioren Epai-Batzarraren Lendakaria; eta, gero, bi
oiek aukeratzen dituzte, zure isillezko onspenarekin,
Epaitegi Nagusi danetako Epaille guztiak.

Baiñan, Joxemari, gizon oiek ez dire neutralak. Orre-
gatiak, ez du oien sententzi batek konfiantzarik merizi.
Ez, beraz, baliorik.

Orrelako gauzak Suezi'ko, Finlandi'ko, Suiza'ko
edo beste edozein Laterri neutral batek epaitu bear
lituzke. ¿Ez al gera ba, eguna joan-da-eguna-etorri,
beste oren gaindik gu Justiziaren, zuzentasunaren, eta
zintzotasunaren maitaleak gabela oiukatzen ari?

Nazio Alkatuek badute Olanda'ko uriburuan orrela-
ko auzietarako Epaitegi bat. Badu Europa Alkartuak ere
beste bat Belgika'ko uriburuan. Ez duzu, ordea, Joxema-
ri, oietako batera jo nai izen. Bildur bait ziñen, epaitegi
oiek ez zutela zure naiarik beteko!

Joku arriskutsuan sartu zara. Turki'n bada emengo
"Batasuna"ren antzeko Alderdi bat. Ba..., ango Epaitegi
Gurenaren sententzi baten araura, Alderdi ori lege-
kanpo utzi du, oraindik asko ez dela, Turki'ko Jaurlari-
tzak lege baten bidez. Europa'ko Alkarteak, ordea, lege
ta sententzi oiek ezerezteko agindu dio Turkiar-Jaurlari-
tzari, Europa'ko Alkartera sartu naiez jarraitu nai ba'du.

¿Zer gertatuko ote da, "Batasuna"k, legekanporatua
izen ondorean aipatutako Epaitegi oietako batera jotzen
ba'du? ¿Ez ote zera lotsagarri geldituko?

Azkarregi zabiltz, Joxemari. Laisterka. Presaka.
Itxu-itxuan. Errabiz.

Errabiz, zure zalaparta guztiok izugarritzko porrot
aundi baten aitortpena direlako. Ziur uste ziñun polizia-
ren bidea gogor erabilliz ETA ezereztuko ziñula. Baiña
ETA bizirik dago. 40 urte ETA'ren aurka borrokan!
Franko'k bi etar afusillatu ere egin zituen, VI Paul Aita-
santuaren eskariari uko egiñez. Baña ETA'k bizirik
jarraitzen du.

Bilbao-Donosti-Gazteiz'ko Gotzai Jaunek esan dizu-
ten bezala, polizizko bideak, naiz bearrezkoak izen, ez
dire naikoa emen PAKEA lortzeko. Bearrezkoa da alka-
rizketa zintzoa.

Oridelata, zuk ere, sekulan alkarrizketarik onartu nai
izen ez duzulako, uts egin duzu. Orregatik, orain, ETA
ezerezterik izen ez duzulako "Batasuna" ezereztu nai
duzu. Baña ¿Alderdi bat lege ezereztu ote daiteke?
Alderdi'ko jendea bai. Baña epailleek. —epailleek
bakarrik—. Eta epaitu-bearraren gaiztakeria "ultra
omne rationabili dubio", "zalantza-bide oroz at" utzita.

Ez pentsa ETA'ren eta "Batasuna"ren adiskide naize-
nik. Asko poztuko nitzeke ETA, ta oraingo "Batasuna"
au, ezereztuko ba'lire, baiña legearen eta zintzotasuna-
ren bidetik.

Bereziki ALDERDIEN LEGEA da, Joxemari geien
bildurtzen nauena. Lege orren bidez, edozein alderdi
legekanporatu aal izeteko, ate guztiak iriki bait dituzu.
Ortarako, ain errez billatu daiteke aitzaki bat! Zuk zero-
rrek, Joxemari, yadanik badabilzkizu bi zure buruan:
Laterriaren osotasunaren etsai izetea, Alderdi naziona-
listen aurka. Autonomitarren aurka, berriz, Laterria'ren
Jurisdizio edo Aginmena moztearen zale izetea. Kontuz
Joxemari! Ez eiguzu borroka geiagorik sortu!

Latiegi'tar Bixente 945 22 00 50



BARRI-ALDIA (MODERNIDAD): 1.-VOLTAIRE (1694-1778)

EDESTIA AGERLE

Urteen joanak agertzen dauz burubideen okerrak. Edes-
tiak aztertuko gaitu.

Ori jazoten jako Eleizeari, antxiñakoa izanik edesti luzea
daukalako. Baiña ez da orretan bakarra. Idaz-lan onetan
eta urrengo beste bostetan barri-aldi edo modernismoaren
okerrak aztertuko doguz, Gonzalez Faus J.L. jakitunari
"Abjurar la modernidad" liburuskan diñoanari jarraituz.
Buruargien (Ilustración) aldiko okerrak gaurko ikuspegi-
tik agertuko doguz. Gaur Voltaire'gaz asiko gara.

ASKATASUNA NAGUSI (Norberarena)

Buru-Argien aldia askatasunerako bidea zan eta ona
emen askatasuna len baiño geiago alboratuta.

Euren guraria iru itzetan agertu eben: Askatasuna, bard-
intasuna ta senditasuna. Baiña bete ete ziran irurak? Ez!
Askatasuna jarri zan nagusi (norberarena) eta onek zapal-
du ebazan beste biak.

BARDINTASUNA?

Joputza (gizonak esklabu izatea) txarra dala diño, baiña
beti izan dala eta izango be bai. Ez dau Voltaire'k berba-
txu bat be esaten jopuen askatasuna lortu bear dala baiezteko.
Bardintasuna ederra dala diño, baiña eziña. Gizonak
aurrera egiteko, geienak ez-eukiak izan bear ei dabe:
"Gizona txarto egiña da eta ez dautso iñori emoten bere
ogiareen zatia. Aundiak txikia jaten dau beti".

AURRERAPENA

Buru argia ta aurrerapena lortzeko bidean ez da gizona
piztien antzekoa, baiña bai alkar-laguntzan edo makalak
aintzat artzeko bidean: Ekonomi-arloan gizonak eta piz-
tiak bardiñak gara: Gizakien arteko bardintasuna onetan
amets utsa edo kimera da.

Orregaitik, toki guztietan gizona izan da emakumearen
jabe, indartsuagoa dalako, gorputzez eta gogoz aundia-
goa dalako.

Eta iñon ez diño ori aldatu bear danik!

BAKOITXA ABERASTU

Saldu-erosia da aberatsa izateko bidea.

Inglaterra berez txiroa da baiña saldu-erosian aberastu
zan. Ez dau itauntzen salerosketa orreik noraiño itzi ebe-
zan txirotuta besteak!

Esku-zurien edo burgesen aurka dago Voltaire, baiña arlo
orretan curen alde agertzen da, jopuak, esklabuak, saldu-
ta be aberastu ziranen alde.

Ara zer diñoan eskutitz baten: "Nire ustez bearrezkoa da
eskeko ez-jakiñak egotea. Langillea be ez da egin bear
jakitun. Be-maillako erria pentsatzen asten danean, dana
da galdua".

ALKARTASUNIK EZ

"Mundutarra" deritxon bere olerki baten diño "alkartasu-
na (solidaridad) il egin bear dala, norbera ondo bizi iza-
teko. Gure aurretikoak goratu egingo doguz, ez sedarik
ez urrerik ez eukelako? Ez, gizona, Jainkoagaitik! Jabe-
tza barik maitasunik zorionsuena ez da maitasuna, bear-
izana baiño".

BURU ARGIA (RAZON) NAGUSIA

Buru-argia dauko Voltaire'k bere jainko-lekuan, erre-
geak, eleizak eta nobleak kenduta, baiña bere elburua ez
da besterik batzuk (onein artean bera) ondo bizi izatea
baiño. Ezin dau menperatu norberekeria, batez be diru-
arloan.

Bide orretatik ez dau lagundu Voltaire'k gure mundua
zuzentzeko: Zelako mundua sortu dau ortik? Gizakien
artean % 80 gosez bizi-izatea lortzen lagundu dau, orain-
goz, eta gero zer etorriko ete da? Goratu torre bikoitxen
(gemelas) arazoa.

(Oarra: Esandako "Abjurar la modernidad" liburuskatik
au eta urrengo zenbakietan beste bost idaz-lan aterako
dodaz: 2.-Buru-argien irakatsia, 3.-Liberaltasun barria
erleen antzekoa, 4.-Monteskieu, 5.-Rousseau, 6.-Edestia-
ren elburua.)

OLAZAR'tar Martin



ALDI ZKARI ONEK
BI ZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DI RU-LANGUNTZA JASO DAU

JAKINTZA

EUSKAL ASTEA

(BILBAO'KO UDAL-BATZAREN LAGUNTZAZ)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez, aurtan be Euskal Astea eratzen dau:

Non? Euskerazaleak Alkartearen etxean (Larreategi'ko Kolon kalean, 14n. atean, bigarren etxemaillan)

Noz? Azilaren 25'etik 29'ra

Ordua: 8'retan

IZLARIAK ETA GAIK:


25-astelena: Bertsolaritza: Legarreta'tar Asier'ek

26-martitzena: Euskaldunak eta Europa: Atutxa'tar Paul'ek

27-eguastena: Lenengo kristiñauak Mungialdean: Olazar'tar Martin'ek

28-eguna: "36'ko gudaldian su-izkillatutako idazle gazteak" liburuaren aurkezpena: Olazar'tar Martin, Atutxa'tar Paul eta Latxaga'k.

29-barikua: Emeterio Arrese Olerkaria: Zubiri'tar Iñaki'k



AGUR ARBOLA DEBEINKATUA

"¡Agur; arbola debeinkatube!"

"Neguban igartuten de
arbolie: orrijek jausten dire
bere oñetara eta anche
orbelak indarrrik emoten
deutsaz dirianak udabarrian
orri barriai.
Gorputzarako irudije legez,
barkiñ de izpirituarako
berbakuntza. Arrapau
euskebezan legezarrak, gure
bizije zirala, bañon gorde
daigun gure euskaldun arimie
eta onetati urtengo jakuz
barriro foruak, bai, urtengo
dira justiziaren eguzkije

argituko danian, betiko
udaberriaren egunian.
Euskeraz berbeiten eben gure
aitonen aitonak, gizon ayek
etorri ziran, eztakigu
nundik, narruakaz jantzijek,
arriko azkoriakaz armatubek,
pakian lugogor onetan
laneiteko. Ayek baño gero
etorri ziran iberotarrak,
zeltak, erromarrak eta
arabiarrak, ekarri eben
bakochak bere berbakuntza,
bañon zapaldu
zirian. Euskalerrriaren kontra.
Euskarako soñu gozoak

entzun zirian Terranovako
errijetan Colonen jayotza
baño len.

¡Agur eiten zaitut, arbola
zarra, anaijen odolez eta
amen negarrez erregatube,
bañon Jaungoikoaren
eskubagaitik bedeinkatube,
arech maitea, ondatuten
dituzuzana zure sustraijak
lur onetan, gizon pratuben
biotzakaz oratube, gorde
gaizuz danok zure
kerizpian!".

Miguel de Unamuno

c~>a •c~a~

EUSKAL ASTEA (BILBAO'KO UDALAREN LAGUNTZAZ)

BILBAO
AY. TUIL II
LAGUNTZAILLE

Euskerazaleak Alkarreak, urtero legez, Euskal-Astea eratzen dau. Ona emen gaiak eta gaunak?

Tokia: Euskerazaleak'en egoitza. Colon de Larreategi 14, 2~, eskioia.

Egunak: Azularen 25'tik 29'ra.

Ordua: 8 retan.

Gaiak: 25, astelena: Bertsolaritza. Legarreta Asier.

26, Martitzena: Euskaldunak Europa'n. Atutxa Paul.

27, Lenengo Kristiñauak Mungialdean. Olazar Martin.

28, "36'ko Gudaldian su-izkillatutako idazlen gazteak" liburuaren aurkezpena. Latxaga, Atuxa ta Olazar.

29, Emeterio Arrese Olerkari giputza. Zubiri Iñaki.

EUSKERAZALEAK

ABIZENAK

BASALDUA: Okendon sortua dala diño e baiña gero zabal dabil. (Bilbao-1637)
Batzuk "ase" edo sasia artzen dabe jatorri lez, baiña erre-zago da "basoa" artzea eta onek "-aldu" atzizkia daroa eta goikoa esan gura dau.

BASOZABAL: Oñaten agertzen da, Mungian be bai. Gero Errioxan. (1600)
Esangurea argi dago: Basoa ta zabala. Olako lekuan etxe-
ren bat.

BASTERRETXEAA: Bizkai guztian, itxas-ertzetik asita. (Ondarribi-1645)
Esannaia argi dago: Basterrean dagon etxea.

BAZTERRA: Gazteizen eta Orozkon agertzen da eta zabaldu Bizkaian geien. (1701)
Berbeak argi diño zer dan: Basterrean egindako etxeari ipiñiko eutsoen izen ori, ortik abizena. Ez dot uste batzuk aitatzen daben "sasia" kontuan artzekoa danik.

BATIZ: Fruniz'en dagoz iru etxe izen au dakenak (Goi-
koa, Bekoa ta Erdikoa). Arbazegin be ba-dago.
"-ata" sasia ei da, "B-" gero ezarretakoa eta azkeneko "-
iz" toki-izen askotan agertzen da eta ez dakigu zer dan.
(Bilbao-1791) ugaritasuna.

BAJENETA: Arrietako Jainkon dago etxe bat. Fika'n be
bai beste bat, Bainta deritxona, lenago Bejeneta izango
zan.
"-ai" mendi-aldapa ei da, -in- toki-atzizkia, "-eta" asko-
rena eta asierako "B-" gero ezarria. Orduan "aldapan
dagozan" etxeak litzake. (Arrieta-1587)

BEASKOETXEA: Erri askotan dago izen au: Galdaka-
non, Marurin, Gamizen, Atxondon.
"-Etxea" argi dago eta "-Beasko" beko-aldean dagoana
da.

BEGIRISTAIN: "-egi" aldapa da, "-iri" irea, "-st" ` -
tza"ren antzera, ugaritasuna eta "-ain" gaiñean. Aurreko
"B-" gero ezarria da: "Ira asko dagoan aldaparen gain".
(Azpeitia- 1570)

BEITIA: Bizkai guztikoa da, batez be Mungialdekoa.
(Elorrio-1575)
"Bee" etxea dagoan tokia da, beia, eta "-it-" toki-atziz-
kia. "Goitia" be antzekoa.

BEIZTEGI: Bergara-inguruan zabalzen.
Oñarrian "-iz-" dago, iza uretako zia da, junkoa, eta "-
tegi-" asko dagon tokia. Aurreko "B-" gero ezarria, erre-
zago esateko. (Soraluze- 1562)

BELARRINAGA: Larrabetzun sortua.
"Be-", bekoaldean dagoalako, "-larrin-" edo "larrain"
garia joteko lekua (era) eta "-aga-" toki-atzizkia. "Beko
larraina dagon lekuko etxea".

BELASKO: Abizen euskalduna da jatorriz, baiña Eus-
kalerritik urten egin dau. Gaur emen dagozenak geienak
gero etorriak dira. Baiña abizena jatorriz euskalduna da.
"Bela-" guztiok dakigun egaztia da eta "sko" umea adie-
razten dauan atzizkia: Oillasko.
Belasko, belakumeá da. 915n. urtean agertzen da, Oskan.

BELDARRAIN: Gipuzkoako Aia inguruan sortua da
baiña Bizkaian be ba-dago, bear ba'da neguko artzainak
ekarrita. (Donosti- 1697)
Bedartza baten gaiñean dagoana esan nai dau: "Belar-
gain".

BENGOA: VIII gizaldian agertzen da Leniz'ko Gatz-
gan. Mungialdean eta Bizkai guztian be ba-dago.
Jatorriz "Berengoa" da, beste etxe batzuk artean beren
dagoana.

BENGOETXEA: Bengoa lez, beren dagoana adierazten
dau, baiña emen "-etxea" be agertzen da. (Iruña-1758)
Gipuzkoa geienean dago eta Bizkaian be zabal, batez be
Mungialdean.

BEOBIDE: Bizkai eta Gipuzkoa osoan agertzen da.
(Asteasu- 1749)
Beorren bidea adierazten dauala dirudi.

LURRAREN ONTASUNA

Lurrak landu-alan, ale onak emoten ditu. Izan bere, ortarako dira soloak, landuak izateko ta gizadiari janariak sortzeko. Gizonak lan egiten dau ba, ta izadiaren Jaubeak lurra ta gizonaren izerdiak bedeinkatu egiten ditu.

Alderdi biok dira bear-bearrezkoak. Alan autortu eben antxina, lur langilleak, zeru ta lurretara begiratuz, masuagaz luna jo bear dau ta biotzagaz otoi, masukada orrek frutu onekoak izan daitezen.

Baserritar zentzudunen burua, beti, bide orretatik ibili zan. Baserri lugiñak ondo ekien lana, euria ta eguzkia, sasoi, onean bear zirela. Lana berak egingo eban, baña curia ta eguzkia ez egozan gizonaren eskuetan.

Lurrak landu, jorratu ta ondu ondoren, zenbat bider gure arbasoak, txapela kendu ta eskaria egiten eutsoen eguzkiaren Jaubeari laguntasuna eskatzen.

Jokabide au biziak eskatzen dau. Gure almen ta nai izatez goitik dago gari ale batetik galburu eder ta ugari bat sortzea ta arta-garau batetik artaburu urrezkoa sortzea.

Zelako gari solo ederrak ta zelako artotza bizigarriak ezagutu izan genduzan, antxina ez dala. lengo aldian. Txapela kendu ta agurtzeko erakoak ziran. Egiz, ikusten ziran gizonaren eskua ta Egillearen bedeinkapena. Biak ondo alkai artuta ebiltzazan.

Gizonaren sinismena, lana ta izerdia, abegi onez, artzen zituan biziaren Jaunak ta giza seme-alabak be sarri gogoratzen ziran beragaz, laguntasuna askatzeko ta eskerrak emoteko. Artu-emonean egozen beti, lurraren ugazaba ta morroia, ta era orretan, lurreko langilleak barruko bake ta poz geiagoz bizi ziran.

Barruko poza ta kanpotik agertzen dan poza, sarri ez dira bardiñak. Barruko pozak bakea ta atsedan ederra beragaz daroaz ta azaleko pozak bere jotak daukaz. Etxetik urtekeran arpegi baltzizkea agertzen dau ta jende

artera sartu ondoren, pozaren iturria dala dirudi. Nork ete dauka errazoia.

Gari solo ederrak, arto sail nagusiak ta patata soloak loran, baserritarren ametsa ta bazkaria ziran. Lurra oparota zan ta gauza ederrak emoten ebazan gizadiaren onerako. Baiña baserriko lanak ezin dau gizona asetu ta emakumea gitxiago. Begiratu lau alderdietatik gizarteko bizitzari ta ezin dabe aztu giza-semea ez baserriak, ez burdin-lantegiak ta ez itxasoak.

Persona batek bakarrik orreik guztiok baiño geiago balio dau, lagunaren izatea, askoz, gorago dago. Adimena, borondatea, maitasuna ezin bardindu leitekez ez burdiñagaz, ez zidarragaz, ez ureagaz. Gizonaren lan ta jakituri barik, lurpean, erdi-illik egongo litzakez.

Antxina, gizon jakintsu ta santu batek Jaungoikoari esan eutsan: "Nire biotza artega dago zuregan atsedendu arte".

Geuk be Agustin santuagaz batera, bardin, diñogu: Ez dogu aurkitu gaur arte, gure barruko atsedan osoa, ez janarietan, ez arte-lanetan... Jaungoikoak esan eban: "neure irudira egin dagidan giza semea". Guk daukagun titulurik aundiena auxe da: Munduaren Egille berberaren antzekoak izatea.

Jaungoikoaren irudi eder ori, emengo gauzak ezin leikie ba, goitik eta berañño poztu. Gure adimen eta naimenaren askatasunezko bizitza ori, bizia sortu dauanak bakar bakarrik, asetu leike.

Lurra bear dogu, lurrean ipini ginduzan da, lurreko gauzak bear ditugu, aren bidez gure bizitza jorratu bear dogu-ta. Ta orren bidez nai dau gu zurtu ta beregana eltzea, ta beragan zoriontsuak izatea, gure barruak eskatzen dauskun eran.

PAULIN

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (amazortzi euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagoi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 € Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

MIKEL SANZ
 NAPAR GUZTIEN LENDAKARI JAUNARI
 BEGIRUNE AUNDIZ

Oarra: (Urteak dire, urte asko, Iruña'ko "Diario de Navarra'n, astero idazteko, nere "columna" edo goitik-beerako txoko bat badedala. Or argitaratua izan zedin bialdu dut, asko ez dala, orregaitik Naparroa'ko euskeraz idatzirik, ondorengo idazti au. Ez didate argitaratu. Ez ornen du lendakari bati zor zaion eraspenik bear bezala gordetzen. ¿Gordetzen ote dute zuk eta nik ezagutzen dugun beste Lendakari batez ari diranean, eguneroko ortan argitaratzen diran beste idazki asko eta askok'?)

Ikurriñei-buruz sortu duzun borroka latzaz itzegin nai nizuke gaur, Mikel adiskidea.

Zu, neretzat, eta mundu osoarentzat, napar guztien lendakaria zara. Ori, egi da.

Bañan egi orren inguruan, landare baten inguruan belar gaiztoa bezala, pentsamentu makur bat jaiorik daukat buru-barrenean. Eta egunetik egunera azitzen dijoakit pentsamentu makur ori.

Neri, Mikel, pentsamentu gaiztoak maiz etortzen zaizkik. Eta kosta egiten zait pentsamentu oiek burutik kentzea.

Ta, burutik uxatzeko orain arteko beste guztiak beño zallagoa zaiten pentsamentu gaizto onek au sinistaerazi nai dit:

- Zuk badakizula napar guztien Lendakari **izen bear duzula**, baña zuk **ez duzula napar guztien Lendakari izen nai**.

Badakit ori pentsamentu gaizto bat besterik ez dela.

Zu zara, ordea, Mikel, zure jokaera baldarren bitartez, egunero indar berria ematen diozuna.

Orrela, adibidez, udaletxeetako balkoietan ipiñitako ikurriñei-buruz sortu duzun iskanbillaren bidez.

Badakit, nik, gizakume lander naizen onek, zuri, Napar guztien Lendakari Jaunari, maixu bezala erakusten astea, ausardikeri aundia dela, zuk nik beño askoz geiago dakizulako; ez bait ziñen bestela Lendakari izeteko aukeratua izengo. ¿Nork aukeratzen du bá tonto bat lendakaritzarako, aukerazalle beraiek ere tontoak ez ba'dire'?

Baña. zerbait erakutsi dezakeen tontorik ez bait da, entzun eidazu, arren, patxadaz eta asarretu gabe, tontorik tontoena nauzun oni.

- Bigurutzedun ikurriñ ori Udaletxeetako balkoietan jartzea debekatu nai duzu.

Balkoi oiek. ordea, ez dire zu Lendakari zaitun Jaurlaritzakoak. Ez dire, ezta, Jaurlaritza orrenak. Udaletxeetakoak dire. Eta udaletxeenak. Jaurlaritzak ez du, beraz, arazo ortan zertaz sarturik.

- Zuri atsegiña ez zaizun ikurriña agertzen duten Udaletxe oiek ere ez dire zureak, Mikel; pertsona batenak ize-

tekotan, bakoitza bere Alkate Jaunarenak dire. Beraz, alde ortatik begiraturaz ere, auzi ortan zuk zer egiñik ez duzu.

- Alkate Jaunak, berriz, ez dire Lendakariaren morroiak. Alkate Jaun oietako bakoitza, iñoren morroia ba'da, iñor ori, bere Erria da. Erriarenak dire, bai Alkatea, bai Udaletxea, bai Udaletzeko balkoiak eta, baita, balkoi oietan ipiñi oi diren ikurriñak ere, eta, orregatik, Erriak, eta Erriaren baimenarekin Alkate Jaunek, nai dituzten ikurriñ guztiak agertu dezaket: Andaluzi'koa Kanarietakoa, Euzkadi'koa, Guatemala'koa, Bretañi Aundi'koa eta Kotxintxina'koa, oietako bat, edo danak, ipiñi nai ba' dituzte.

Ori-dela-ta, beste alderdi ortatik so-egiñez ere, zuk ez dazakezu, Mikel, iskanbill ortan eskurik sartu.

Soilki, ikurriñ oietako bat norbaitentzat edo zerbaitentzat isekagille dela ikusiko ba'litz, orduan bai, orduan izengo zenuke ori epaitegira salatzeko eskubidea, epailleak zer egin erabaki aal dezan.

- Eta, Españi'ko ikurriñ gorri-ori-gorria iñorentzat isekagille ez den bezala, Euzkalerriko ikurriñ bigurutzeduna ere ez da, ez iñorentzat ez ezerentzat, isekagille, ots, burla-egille.

Orregatik dakusgu Eusko-Iparraldeko baztar guztietan lau aizeetara alaiki zabaldurik. Euskalerrri guztiko ikurriña delako.

¿Bai al dakizu, Mikel, Ipar-Euskalerrrian dauden bata-lloi frantziarrek, kalera era dotorean agertzen direnean, — Frantzi'koarenarekin batera, jakiña — bigurutzedun ikurriñ ori eramaten dutela beren aurrean, ikurriñ ori Euskalerrri osoaren ikurriña delako?

¿Bai al dakizu, guda amaitu zenean, De Gaulle'k bigurutzeko ikurriñ orri militarki agur egiñez, Frantzi'ren esker ona agertzeko Frantzi'ren baliorik aundieneko domeña ipiñi ziola Bordele'n, bertako errejimentu guztien aurrean?

Bai, Mikel, bai. Bigurutzedun ikurriñ ori, Euskalerrri osoaren ikurriña da. Orrela erabaki zuen Bigarren Errepublikaren aroan, Eusko-Jakintzen-Batzordeak, politikalarrien eskariari erantzunez; eta mundu guztian izen zen, erabaki ori, ontzat artua.

ERRIGINTZA

Geiago esango dizut nik, Mikel: Entzun:

Ikurri ori, Euskalerrriaren barruan, bereziki nonbaitekoa izetekotan, Naparroa'ko ikurriña da!, eta Naparroa'ren ikurra!

Gaurregungo katedun ikurra, Mikel, oso berria da Naparroa'n. Aurretik, Naparroa'ren ikurra bigurutzedun ikurra izen zen.

Iru ikur edo eskudo izen ditu Naparroa'k:

- Aurrenekoa, bigurutzedun ikur ori. (Arrano bat zeramana ere erabili oi zuten noizbeinka aro artako erregeek).

- Geroago, bigarrena, bi gurutzeen gainean iltz boro-bill batzuk zeramazkiana.

- Eta, azkenik, gaurregungo ikur katedun ori.

Danetan zaarrena, ordea, —eta jatorrizkoa—, biguretzeduna!

Bigurutzedun ori ikusten da gure erregerik zaarreen garaiekoak diren larrukietako irudietan.

Muskari'ko katedral ederra, erromanik-erakoa da, XII mendean asia. Bá, an, zutabeen buruetan-da, ugari eta nabarmenki, ta arro ta argi, agiri da Naparroa'ren ikurra: Bigurutzedun ikurra.

Ikur ortatik sortuak dire ondorengo biak:

Bigarrenak, iltzedunak, —burnia astuna bait da—, askotan ikurak zurezkoak izeten zirela oroiterazten digu, eta gainean eraman oi zituzten irudiak, azpiari iltzez josiak izeten zirela.

Ta, iltz oiek, larrukietako irudietan gero ta geiago eta alkarrengandik urbillago agertzen diralako, kateen itxura artu zuten, eta, azkenean, kateek artu zuten aien lekua. Ortik Naparroa'ren irugarren ikurra. Gaurregungoa.

Badakit zer esango didazun, Mikel:

Kate oiek, Miramamolín musulmanen erregeak, bere kaparraren inguruan jasorik zeukan kate gogorrezko esi artako kate aiek direla: Gure VII Santxo "Indartsuak", Nabas-Tolosa'ko borrokaldiaren erdian mallutzarrez joka puskatu zituan kate aiek direla.

Gure errege aren eginkizun arrigarri orrek ikaratuta iges egin zuela errege musulmanak, eta orri eskerrak izen zela ain aundia kristauen garaitza. Eta, guzti ori beti gogoratua izen zedin, VII Santxo gure errege berbera izen zela, kate aien zati batzuk bere ikurrari josi zizkiona.

Eskerrikasko Mikel. Badakit kondairak ori guztia esaten duela. Baiña guzti ori kondaira utsa da. Ez da egia. Ez

da edestiaren larre legorrekoa, kondairaren lorategi oler-titsuko lilia baizik: leyenda.

Guzti ori, Mikel, borrokaldi artan izen zen Rada'ko Jimenorena'tan Errodrigo Goigotzaiak bere «Españi'ko Edestian» idatzi ziguna da.

Goigotzai ori, naiz Toledo'ko goigotzaia izen, jatorriz naparra genuen, euskalduna, bere Erria ta bere Erriko gauzak maite zitua¹; ta, dirudianez, bere Erriko erregearen jokaera mardula goraiatu nai izen zuen. Orrelako jardunkerak oiturazkoak bait ziren aro aietako edestilarien artean.

Badakigu, gizon galanta izen zitzaigula edestiak «Indartsua» izendatu duen VII santxo. Ori adierazten du Orreaga'n bere illobiko ezurdiak: erraldoi bat izen zela. An erakusten da gduetara eramaten ornen zuen izkillua: ia metroerdi bat luze den burnizko kirten bati puntan katez lotutako burnizko bolatzar aundi bi. Izkillu ori, ordea, etsai amorratuen artean, jo emen eta jo or eta jo an, egun osoz, gelditzeke aidean erabili dezakeen gizakumerik ez da, naiz gizakume ori, gure VII antzera, erraldoi bat izen.

Baña egia da beitzet borrokaldi artan oso txarki zebiltzela kristauak, eta borroka galdutzat zeukatela, Gaztela'ko erregeak, bere goigotzaiari "*Archiepiscopo, ego et vos hic moriamur*", esan zionean. "*Nequaquam, o rex, —erantzun ornen zion arek, bere ezpata guruntz jasoz—, Vos et ego hic vincemus!*"

Ikusi-bide zuen bá, VII Santxo errege euskalduna, Naparroa'ko ikurriña zabalik zuela, orduango euskal-gudaroztearen aintzinean, borrokategira urbiltzen ari zela, garaitza ziur baten adierazle. Ala gertatu ere zen. Eusko-gudarozte arren etorrerak, borrokari, aldapen osoa eman bait zion!

Errege-ta-Goigotzaiaren-arteko alkarriketa ori egiazkoa izetea badaiteke, Mikel, ori dioskuna Goigotzaia bera den ezkerro.

Baiñan, gure VII Santxo'k Naparroa'ren ikur zaarra aldatu zualako ori, ori..., jori egia ez da!

Orduango larrukietako irudietan BIGURUTZEDUN IKURRA besoan duela agertzen bait zaigu, zaldun, VII Santxo gure errege "Indartsua"!

Latiegi'tar Bixente 945 220050.

¹ Poliglota aundia izen zen gure Goigotzai ori. Letran'go Kontzilio ekumenikoi batean izan zan. Bertan izkuntza bereizi asko itzaldi batean erabili ondorean, onoko au esan zien aurrean zeuzkan kohtziliokideei, "orain nere izkuntza, lingua navarrorum, naparren izkera erabiliz itzegin nai dizuet". Eta eskeraz mintzatzen asi zitzaien.

(; Oneraiñoako ori da "Naparroa'ko Egunerokoa"ri bidali niona. Emendik aurrerakoa, idatzi bai, idatzi nuan, baiñan ez nuan bidali. Esango dizut zergaitik)

¿Nolakoa ote zen, margoz, Naparroa'ko ikurrin zaar ura?

Naparra'ren ikurra nolakoa zen badakigu: bigurutze-koa.

Naparren ikurriña beti gorria izen dela esan oi da. "Beti" ori, ordea, oso motza da. Nolakoa ote zan leenago.

VII Santxo Indartsuaren garaiean, adibidez?

Gorria?

Baleike. Euskaldunoi margo atsegiña izan bait zaigu margo gorria. Txapeldunen margoa kiroletan. Eta jai egu-
netako dantzarien gerriko etoa txapeletan.

Ez dut ordea uste, antziñate artan gorria ba'zen ere, gaiñean ezer^s abeko oial gorri bat izengo zenik. Garai zar aietako ikurriñek beti eramaten bait zuten oial-gaiñean margoztutato irudiren bat. Baita irudi ta apaingailu ugari ere, bein beiño geiagotan.

Ia ziurki zerbait bazeramala esan daitekeen ezker, ¿zer ote zen Naparroa'ko ikurriñ gorriak bere baitan zera-
mana? ¿Agian Naparroa'ko ikurraren gurutze bi aiek ber-
berak?

Baleike. Bi gurutze oiek txit egoki bait zetozkien ain kristau sendoak izen ziren gure errege zaar aiei!

Baiñan..., ontaraiño iritxi geran ezker..., ¿nolakoak ote ziren bi gurutze oien margoak.

Ori, agian, jakin dezakegun gauza da. Muskari'ko katedral bikaiñeko zutabeen buruetan ikusi daitezkean bi gurutzeko ikur aiei eskerrak. Erromanik-aroko elizak, danak, barrundik beintzat osoro margoztuak izeten bait ziren.

Gero, tamalez, urteen eta mendeen joanarekin batera, ezabatu ta galdu egin zaizkigu margo aiek.

Baiñan beti geldi oi zaizkigu, naiz oso txikiak izen, margo zar aien aztarnak.

naiz aztarna-apur oiek aztartzeko laboratorietako mikroskopiak erabilli bear izen.

Ta, asko bait dire muskariar-katedraleko ikur biguru-
zedunek, benetan uste dut ikur oiek, denen artean, bi

gurutzeen margoen barri emango digutela, ortan saiatu nai ba'dugu.

Saia gaitezen beintzet gu orain, al dugun zintzonik logikaren bidetik ibiliz bi gurutze aien margoen billa.

- Azpia GORRIA izanen zutela, esan dugu: margo ori euskaldunontzat margorik atsegiñena ta dotorena izen delako, eta Naparroa'ko ikurriñaren oiala eta ikurraren azpia beti gorriak agertu zaizkigulako, ta len orrelakoak ez zirela izen esateko batere arrazoirik ñork agertu ez dezakelako.

- Bi gurutzeetako bat, Kristo'ren gurutzea da; bestea Ander Donearena. - Aurreneko guretze orren margoa, ots, Kristo'ren gurutzearen margoa, seguruaski ZURIA zela, esango nuke nik. Zuria bait zen irudizti zarrean argiaren, egiaeren, biziaren eta berbizkudearen margoa.

- Bigarren gurutzearenaz, ots, Ander Donearen gurutzearen margoaz, mintzatu aurretik, aspaldi irakun-i nuan zerbait gogora ekarri nai nuke: jakiña da Ander Donea gurtzean iltzera galdu zuela epaille jentil batek. Erailleek, sentetzi ura len-bait-len bete naiez, epaitegiaren ondoko baso batera eramane omen zuten. Eta, an, zugaitz eze bate-
tik bi adar moztu, adar eze aiekin gurutze bat eratu, ta gurutze arri iltzatu omen zizkioten Ander Donearen eskuak eta oiñak.

Kondaira orrek ezer egiazkorik ba'lu, Muskari'ko ikur aietako Ander Deunaren gurutzea, margoz ORLEGIA izen zela, esango nuke nik. Ori bait da gañera itxaropena-
ren margoa.

Azpi GORRIAN, beraz, Ander Donearen gurutze ORLEGIA, eta gurutze orren gaiñean, Kristo'ren gururu-
tze ZURIA.

Muskari'ko Katedralean nabarmen dirauten ikur aietako margoak oiek direla agertuko ba'litz, Arana Goiri'tar Sabiñ'ek Euskalerrarentzat ikurriñ bat antolatzerakoan oso-osoan asmatu zuela esan bearrean aurkituko giñake:

Oiala bera, GORRI. Oial ortan Ander Deunaren guru-
tzea, ORLEGI. Ta gurutze orren gaiñean, ZURI, Kris-
to'ren gurutzea!².

Euzkadi osoaren ikurriñ eder polita.

² Orain esango dizut —gure Aldizkari ontan agertzeko zerbait abertzaletasunez jantzi dedan nere idaztiaren azkeneko zati au— zergaitik ez nuan Iruña'ra bidali. Bildur izan nintzalako. Badakit nere idaztiok Naparroa'n asko irakutzen dirala, ta, oridalata, bildur izan nintzan, ¡bildur!españizale amorraturen batek, Muskari'ko katedralako ikurren margoak nolakoak izan daitezkean jaikitean, ez ote zituan ikur oiek Garzon epailleren aurrean salatuko, eta Garzon epaillak, ikur oitako margoak agertzea Euskalerriko terrorizmoari indar-emaille izan daitekealako, ikur oiek ongi arraska ta arrask ta arraska ta arraskatzea ez ote zuan aginduko.

BIRIBILLA

Gauza biribilla dirudi gure ametsak. Lenengo begiratu daigun gure aurrean daukaguzan gauzetara: Jolasera-ko pelotea biribilla da. Ta denpora pasagarri ta gorputz ta gogo osasuna zabaldu ta sendotzeko orixe bear mutil koskor ta gazteak.

Mundu guztian geurea, da izan bere, esku pelota jokoa ta ortarako trebetasuna. Pelota partiduak ikusi ezker, an, agertzen dira euskaldun gaztearen begia, burua ta gorputz liraintasuna.

Bere gogoa da, zintzotasunez, jokatu ta egokitasuna, artea agertu ta ikusle guztiei ederraren poza ta atsegiña emotea.

Peloteak daroa ba, itsu-itsuan, pelotariak emon dautson ariña, indarra ta albilidadea. Ta pelota biribil ta gaztearen trebetasunaz. jende guztia, gora-gora, ipinten daben urrezko partidu biribillak urten dau.

Ta ondoren zenbat zer esan gozo, jakintsu ta pozgarri jendearen artean. Ortarako da izan bere, gizonaren bizia.

Umea ez da jaio atsekabez minduta nekepean, negarrez bizitza saminpean bizi izateko. Berezko deia da pozaren naia, aurrerapidearen garria.

Ta mundu ontan nekeak utsik emongo ez daben ezker, nekeak, pozak, negarrak, aurrerapideak, ondamuak ta laguntza onak, danen artean, katei biribil bat osotzen dabe. Ta gu katei biribil orren barruan gabiltzaz.

Aldiari buruz be, bardin, jazoten da. Il batak bestea dakar ondoren, ta olan, aldi barriak, tarteka, sortzen dira. Danak dira ederrak, baiña euren artean bat da illun eta baltzena, negua. Aldi orretan sartzen garanean, kolore gorritzka ta baltzak zurbildu egiten dira, biziak, sarriago, alde egiten dau gizartetik.

Solo ta mendiak igertu egiten direla dirudie, bizia lurrean, askoz, motelago agertzen da. Dana berantza doala esan lei ta ori dala-ta, udabarriari begira antziz egon oi gara.

Ta azkenean be, aldiaren legea betetan danean, emen da, guk maite dogun udabarria. Udabarri itxaroa maitasunezko argia da... Personak, arkaitzak, mendiak, larra-

bizkerrak, soloak, landak eta baratzak, danak, irriparrez, agertzen dira.

Biziaren erne-miña agertzen asten da alderdi guztietatik.

Neguak eskua emon dautso udabarriari ta lurraren erraiak, oparo, urez asetuta itzi dautsoz. Negu baltzak izan dau udabarriarentzat bere maitasuna ta biziaren gurintasuna emon dautso.

Udabarriak, bai oster, eskar onez erantzun.

Alderdi guztietatik zugatz adarrak orbiztuten asi dira azala dizdiz, dakarrelarik, Bizia erne-miñetan, lora biur-tzen asi da adar magal ta puntetan.

Neguko edurra lora zuri biurtu da udabarrian ta maie-tza da lorartean etorkizunaren itxaropena.

Maietza gogo askoren ametsa. Emen dago gure gogo guztia lurrean ezarrita. Dana lorea, usain gozoa, argia, kimu barriak sortzen eta lora zurietan zabaltzen, sagardi osoa ezteguetako soñeko zuri ederrez jantzi da.

Izadiraren Egillea eta lurra maitasunez beterik dagoz gizadiaren alde, frutu etorkizunaren itxaropena eskeiniaz.

Lurak Egillearen bedeinkapenez ta gizonaren lanagaz lagundurik, janari onak emoten dautsoz gizadiari.

PAULIN

ZUGAZTIAK ERRIAK BAIÑO
LENAGOKOAK DIRA.
BASAMORTUAK ERRIEN OSTEAN
DATOZ.
ZUGAZTIAK GALTZEA
GIZONENTZAK ZIGORRA DA.

CHATEAUBRIAND

ASTAZOU MENDI-TANTAIA

Ezin dot aaztu sentidu neban nasaitasuna. Izadiaren ederra dan Mendi Galduaren iparraldeko glaziarri zurtz eginda adi nengoan. An nengoan ni, bada, 2.580 metroko goieran, oialetxearen ate-aurrean jesarrita.

Etxera atzera etorri orduko, oraindinokarren, 3 egun genduzan aurrean. Alan bada, bearrari ekin geuntson.

—Edu, zer egingo joaguna datozan 3 egunotan?

—Ez jakiat, ba. Pineta arana ez joaguk-eta oraindinokarren ondo-ondo ezgututen.

—Ederto! Ganera, Astazou detitxon mendia bertan jagona. Bearbada, mendi orretara igoteko aukeraren bat euki geinkena.

Egia esanda, aroak zein inguruak asmoakaz aurrera egiteko lagunduten eben. Zirkuaren inguruan egozan ormen ganeko ikuspegia zoragarria zan, Mendi Galduaren ostatu publikotik ikusita.

—Aitor, zein dok Astazou ori?

—Orreetariko bat be ez. An ikusten dozuna Pinetako Balkoia dona, ba, aren atzean jagona.

—Baina, non egin bear dok gora? Orrenbeste orma artean ez jok emoten igarobiderik dagoanik!

—Ara an, eskumatara, orma areen artean! Ikusten dona onil antzekoa clan mendi bizkar a? Ba, antxe jagona igarobidea.

—Igokerearen gogorra, gero! Goizerik jagi bear izango joaguk, osterantzean, eguzkirik zurienak jo eta gorriak ikusi eragingo jeuskuzak.

—Alantxe dona. Baina abiatu baino leenago, ikusi daigun zelango aroa dagoan iragarrita. Ze goian egonda, aldatzea ekarri bajakana,...

Zabaldu barri egoan Pinetako aterpetxea ederto baten etorri jakun aro iragarpenaren barri eukiteko. Telebistako albistegiaren arabera aro ona euki bear genduan, baina danok dakigu albiste orek zenbateraginoko sinisgarriak izaten diran.

—Garagardao bat eta Trina bat, mesedez! Eskerrik asko! Non dozue iragarrita dakarren aroa?

—An barreneko argibide taula aretan! Zu, 2,55 euro izan da dana!

—Badona garestia, gero! Au bai, narru gogorra!

—Txo, Aitor, goazak! Ikusi daigun zelango aroa dagoan iragarrita.

Martitzenean eta Eguaztenean, zerua oskarbi, baina mendialdean baleiteke edoiren bat edo batzuk agertutea.

Indar txikerreko euri zaparrada ekaxtsuren bat be egin leike. Eguenean, orokorrean, txarrera joko dau.

—Emoten jona, goierako vivac-a erabilita, igoteko aalegina egiteko beste denpora eukiko dogula. Zer uste dona ik, Edu?

—Uste dok ik aroak eutsiko deutsola? Ea aro txarra goizago agertu eta bertan goian arrapetan gaituan, gero.

—Ba, arriskatu egin eta kitu! Baina, oraintxe bertan ebatzi bear joaguna.

—Ea ba, goazak! Aalegindu gaitzan!

Arrastiko 6.30 ziran ezkerroan, gure ardura nagusia ostatua topatea zan. Zorionez, ez genduan arazo andirik euki turismo landetxe bat idoroteko. Urrengo arazoa egun birako jana lortutea zan. Guk eroaten genduan ondo arakatu ostean, naikoa zala eritxi geuntson. Alan bada, jendez beteta egozan Bielsako kaleetan apur baten ibili ta gero, lotara joan gintzazan goizik, urrengo egunean goizeko 6.00etan urteteko asmoa genduan eta.

Zeaztutako orduan motorea biztu eta urten egin genduan, Pirinioetako mendi-goienetan egun bi emoteko asmoagaz urten be. Goiz disdiratsu eta ozkirria genduan, eguerdiatean egongo zan berotasunaren iragarpena. Egunabarraren garbitasunak aran guztia garbitu barri egoala emoten eban. Bei talde batzuk goiztari be ibili ziran eta bidean izan genduzan oztopo. Denpora apur bat galdu eragin euskuen. Beien artean zelan edo alan igaro ostean, aparkalekura eldu gintzazan. An jendea lotu barik ebilen, soinekoak zein oinetakoak jantzi-eranzten, makilak aztertuten, eta abar. Gure lepo-zorroak sano andiak ziran eta laster euki genduzan lagun asko guri adi-adi. Argi egoan gure asmoa mendian luzaroan ibiltea zana.

—Egongo dok urik an goian?

—Bai. Ganera, an jagozana Ibon de Tucarroila izenekoa eta alango beste urtoki batzuk be.

—Zergaitik jagozak orreetariko batzuk guri adi?

—Lepo-zorroakaitik, Eburne. Batzuk zorotzat artuko gaioezana: "Pisu andi orregaz aragino igotea!". Beste batzuk, oster, an goian baterik bestera ze ederto ibiliko garan pentsauko joena.

Alan bada, laster agiri jakuzan leenengo izerdi txiztilak bekokian beera. Bekokia burukoaren azpian ondo estalduta egon arren be, eguzki izpiak erruki barik joten eben gure gorputzan. Gitxitan idoroko dogu ain burretsu dan bidezidorrik. Leungunerik txikerrenaren bila genbilzan, igokera gogorra eta ikusgarria zan-eta. Ori dala eta, bein eta barrian, geldialdiak egin bear izan genduzan.

IZADIA

—Zenbat lotuten dok, Aitor?

—Asko, oraindinokarren. Ez eina pentsau orretan.

—Txut! Lotu bear joat apur baten, zurrutalditxu bat egi-teko. Ganera, eguzkitik babestuteko kremea igurdi bear joaguk.

—Kontuz ibili uragaz. Goragino eldu arte ez joaguna-eta besterik eukiko. Au bai eguzki andia!

Azkenean, iru ordu eta erdiko igokera gogorra egin ta gero, onil aren azkenengo zatian igon genduan gora. Bertan aize gozoak artu ginduzan, egindako aaleginagaitik saria izan balitz lez. Ordu laurden bat geroago, Ibon de Tucarroila deritxon urtokiaren bazterrera eldu eta lepozorro astun areek erantzi genduzan.

—Merezi izan dona onagino igotea, Edurne?

—Jakina, baietz! Lekuaren zoragarria! Ango a dok Mendi Galdua dalakoa?

—Ango a Cilindro izenekoa dona eta barrenengo beste a Marbore detitxona dona. Ara ze ederra dagoan glaziarrak eta zelango ikuskizuna dagoan, edoiak Collado del Cilindro-an aurrera igarokeran!

—Bai, ikusi joazat edoiak. Arratsalderako ekatxa dakarella emoten jok. Non iminiko joaguk oialetxea?

—Apurtxu bat gorago, beste aldeko bizkarrean, glaziarrari begira, atan be.

Oba arantza bagoazak, ostots eta justurika asi baino leen.

—Ondo! Au jatea amaitu eta aurrera egingo joaguna.

—Ederto!

Edurnek arrazoia eukan. Collado del Cilindro-tik agertu ziran edoiak, Mendi Galduaren egoaldeko alderditik jaurtigita izan bilitzaz lez. Goriz alderditik, atan be. Ekatxa uste baino leenago asi eitekeanez, aurrera egitea erabagi genduan, oialetxea iminteko leku egokia idoro arte. Ordu-erdi garrenean, lekua topau genduan. Merezi izan eban. Vivac-a eregita egon zanean, ez genduan beste zereginik alperkerietan egon eta atsedena artutea baino. Bide batez, Mendi Galduaren iparraldeko alderdiaren edertasunaz gozatu genduan, ango glaziar eta guzti, antxe eskegita, edozein saguzaar balitz lez.

Edoiak gero eta baltzagoak ziran. Aizea asi zan ibiltan eta burutazinorik txarrenak (ekatx ikaragarriak) etorri jakuzan burura.

—Uste joat oraindinokarren gorriak ikusi bearko doguzala. Begitu, zelango edoiak. Mendi Galdua bera be ia ez dok ikusten.

—Bai, abiada otsean jatozana beerantza, Goriz alderditik, au da, barrualdetik etorri be. Barrabana!

—Beintzat, ez dok izan iragarrita egon dan aro txarra. Aro txar ori beste alderditik etorriko litzakek, ez dok?

—Bai. Bearbada, gaur ekatxa egon arren be, baleitekena biar goizean goiz argitsua egotea. Alan badona, Astazou Tantaira igon-jatsi eta oialetxea arazo barik batu egingo joaguna. Ikusi egingo joaguna.

—Bai ikusi egingo joaguk.

—Ea ba, Edurne ba! Ekatz asko bizi dona oialetxe barruan egonda, ba!

Bai, baina ez 2.600 mko goieran, inguruan 3.000 mko mendiak dagozala, ganera. Bildurtuten asi nok, gero.

Zorioneko eguna izan genduan a. Ilunabarrean otzbe-roak beerantza egin eban eta leenago ardura andiz ikusi genduzan edoiak ezereztuten asi ziran, arik eta guztiz galdu artean. Alantxe ikusi aal izan genduan glaziarrak eskaini euskun beste ikuskizun bat. Eguzkia zeru-ertzean sartuz joiala, kolore gorritzak, gorri ilunak eta zeazgatxak ziran beste batzuk be agertuten asi ziran. Berbakaz adierazoteko gatxa dan eguzki sartze ederra egiten eben kolorek glaziarraren ganean.

—Tok, tok, tok,...

—Aitor, itzartu adi! Goizeko bostak dozak!

—Pffff... pffff...

—Itzartu adi, ba!

—Pffff... pffff...

—Eta ni neu lotia nazala esaten deustak?. Eu be ez az makala, gero!

—Ouuuuuu... Aurreko egunean lez, goiznabar eder-ederra ikusi genduan. Zirru batzuk agertu ziran sartaldean. 550 m geiago igon bear genduzan, oraindinokarren. Kati-lu gozo bete esne kondentsatu, uretan urtuta eta Neskafe lagunduta, gosaldut genduan. Gero, lepo-zorro arin bat jateko, ur, soka eta zeozer geiagoz bete genduan, badaezpadan be. —Oratu ondo sokeari, kontuz non zapalduten dozun eta ez eina beerantza aditu.

—Atx au oso arrakalduta jagok. Arriskutsua dok. Emon eistak eskua, mesedez.

—Ea ba, eldu gozana ba! Ta, ikusten dona ez dala orren gatxa izan, ez dona? Zorionak!

—Txut! Gorriak ikusi joazat. Ortik aurrera, beerantza joatea baino ez geunkan. Oialetxea batu eta bidean beera joatea, aurbeeran, baina! —Orain, au ospatuteko otordu ederra egin bear joaguna. Ondo deritxona?

—Ondo jeritxot! ZEAZTASUN TEKNIKOAK Izena: Astazou Tantaia

IÑAKI MARTIARTU
(BAKIO)

JAKITURIA

Jakituriz ta maitasunez beteriko Jaungoikoaren asmoak apurtuta, lurperatuta geratu ziran. Baiña zer dauka gizonak bere Egillea ezagutu ta onartu nai ez izateko...? Ba-dator eta ba-doa ta bien bitartean ez al dozu begiratu, nora etorri zaran ta nora zoazen...? Zertarako sortua izan zara...? Zeuk ez zenkiala etorri ziñan, baiña adimenez apaindurik eldu ziñan ezkerro, zeure buruan zeunkan argi txintia zure bizitzaren gora-bera guztiak jakin al izateko da.

Askok zergaitik ez dabe jakin nai izan euren Egillearen barri...? Norberekoikeriak itsutu zituen gizonak ta ez eutsen parkatu norkeriak giza semeak bere menpean artu arte. Ura zan poza aundikeriarena. Bere biziaren barri jakin ez, ta goiek artuta, aizearen antzera. Nora doan ez dakiala egin ta amaitzen dau bizia.

Jaungoikoaren asmoa apurtuta geratu zan ta ondame-na gizonaren gaiñera eldu zan. Arrokeria, aundikeria, basati landara orrek nagusitu ziran gizartean ta gizadiko lora eder izan bear leuken anaitasuna galdu zan zoritxarpean, ta ondoren munduak okerbidea artu eban.

Nauskeria, gogotsu ebillen munduan, ta iñoiz ez dau-tso izten bere arloari al dana al dan eran zapaldu arte. Anaitasuna joan zan ba lurtarren artean, ta norberekeriak alegiñik aundienak egingo ditu ingurukoak zapal-tzen. Uztarri txarra gizonen gain eldu dana, ta gaiñera, arroa ta okerra. Personen izatea baiño, pizti zakarren griña geiago dirudi.

Au da ezbearra... bakerako jaiok izan ta gizonak berak asarrea, ikusi eziña ta zapaltzea sortu, ta ortan gaiñera, puztu egiten da ta arrokeri ta nauskeriak ez dau-tsoe ez maitasunik ez anairik urko lagunengan ikusten izten.

Biziaren sorreran bertan, sortu ziran arrokeri, nauskeri ta zapaltzeak zer ondoren ekarri lezkigue gaur. Zer esan leike gaiztakeri oker onek jakituri aldrebestu bategaz buztartu ezkerro... Zer egiten dabe gaur bertan, sendi, erri, ta lan-toki-etan... Anaitasun deadarrak alderdi batetik ta zapaltze biorrak bestetik ezagutu ditugu gure gizartean.

Ta alderdi batetik alkartasun deadarra ta maitasun deia entzuten ba-da, bestetik ulertu eziniko gorroto ta zapaltzea ikusten dira ta norbere nauskeria edertu ezinik ibiliko dira. Au da mundu kaskar baten jokabidea.

Gauz onen bidez aberatsak, zuzengabekerizko ondanez asetu dira. Euren agoan min guzurtia dauke. Mikeas. 6, 3-12.

Patiñetik ura sortzen danez, alantxe sortzen da gaiztakeria andik, an, ez da andikeria ta auzikeria ta auzibearra baiño entzuten.

Beti, nire aurrean zartadak eta zauriak. Izan be, txiki ta aundi, guztiak norberaren ona billatuten diardue eta igarle eta abadeak iruzur egiten.


Nire erriaren austea, -be jota egotea- aringa, osatu nai dabe... Bakea, bakea esanez, baiña ez dago bakerik. Jer, 6, 7-14.

Jaungoikoak bizitza ta lan ardura onek mundu larriari agertu dautsoz, benetan justizia, zuzentasuna nai dabelako lan arloetan ta irabazietan. Ta emon bere, iñork emon ezin leikiozan erantzupen ardurearen menpean. Ta atan bere, ez Israeladarrak aldi aretan ta ezta gaurko munduak bere ezin ditu ontzat artu irakatsi ongarrri oneik ta onen bitartez munduagazko zuzentasun ardura onen jaubea.

SOLOZABAL'dar Paulin

UMEAK ONDO EZI **EGIZUEZ**
ETA EZ DOZUE GERO
BURU-AUSTERIK IZANGO

(PITAGORAS' EK)





kultura
sortzen dogu



kultura



BILBAO 700 • III MILLENIUM

Sormena bultzatzen dogu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, barriak eta klasikoak, bear-bearrezkoak. Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia.

Au da gure kultura.

www.bbk.es

200 pezeta (1,20 Euro)

bbk²